

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:
- a) Eguzkia eta planeta baten arteko **erakarpen** indarra, zentrala eta kontserbakorra da
b) Eguzkia eta planeta baten arteko **erakarketa** indarra, zentrala eta kontserbakorra da.
 - a) Elgoibarren oso jardunaldi interesgarriak antolatu ziren **Makina-erraminta** sektorean euskara **komunikazio-erraminta** edo tresna bihurtzeko ahaleginean.
b) Elgoibarren oso jardunaldi interesgarriak antolatu ziren **Makina-erreminta** sektorean euskara **komunikazio-erreminta** edo tresna bihurtzeko ahaleginean.
 - a) MSTko nekazariak **erailtzen** dituztenean, mugimenduak ez du inoiz txanpon berarekin ordaintzen.
b) MSTko nekazariak **erahiltzen** dituztenean, mugimenduak ez du inoiz txanpon berarekin ordaintzen.
 - a) **Entzuleri** horien onarpena zen garrantzizkoa, eta tutorearen erantzun kritikoa ikasleari helburu hori lortzen laguntzen zion heinean zen baliagarria.
b) **Entzulego** horien onarpena zen garrantzizkoa, eta tutorearen erantzun kritikoa ikasleari helburu hori lortzen laguntzen zion heinean zen baliagarria.
 - a) Bi argazki erakusketa eta bideo **erakustaldi** bat antolatu dituzte DFOTO azokaren aurrekari.
b) Bi argazki erakusketa eta bideo **erakusaldi** bat antolatu dituzte DFOTO azokaren aurrekari.
 - a) Jorge Oteizak ere Imanol Urbietaren lana goraiatu zuen: «Imanol, haur **eraikele** amorratua» izan zen. Aitzindaria haurren musika hezkuntzan.
b) Jorge Oteizak ere Imanol Urbietaren lana goraiatu zuen: «Imanol, haur **erakitzaile** amorratua» izan zen. Aitzindaria haurren musika hezkuntzan.
 - a) Arrasate eta Uztaritzeko saioak **erabakiorrak** izango dira Bertsolari Txapelketaren finalerdirako zerrenda osatzeko.
b) Arrasate eta Uztaritzeko saioak **erabakigarriak** izango dira Bertsolari Txapelketaren finalerdirako zerrenda osatzeko.
 - a) Plaza mugatuak dituzten ikasketetan edo unibertsitate publikoetan, eska-riak honako lehentasun, hobespen eta balioespen **irizpideen** arabera aztertuko dira.
b) Plaza mugatuak dituzten ikasketetan edo unibertsitate publikoetan, eska-riak honako lehentasun, hobespen eta balioespen **erizpideen** arabera aztertuko dira.
 - a) Basurtuko ospitaleko zuzendariak iragarri du, datorren urteko Plan Estrategi-koaren ondorioz, **Erizaintza** arloan egingo direla aldaketa nabarmenak.
b) Basurtuko ospitaleko zuzendariak iragarri du, datorren urteko Plan Estrategi-koaren ondorioz, **Erizantza** arloan egingo direla aldaketa nabarmenak.

A R I K E T A K

10. a) Makinaria militarra martxan jarduteko behar diren baliabideak ez emateko, aurten ere talde antimilitaristak, errenta aitortpen garai honetan, **eragozpen fiskala** egitera animatzen dute.
b) Makinaria militarra martxan jarduteko behar diren baliabideak ez emateko, aurten ere talde antimilitaristak, errenta aitortpen garai honetan, **eragozketa fiskala** egitera animatzen dute.
11. a) **Erensugea** edo Dragoia mundu osoko mitologian agertzen den animalia-izakia da, baita Euskal Herriko mitologian ere.
b) **Herensugea** edo Dragoia mundu osoko mitologian agertzen den animalia-izakia da, baita Euskal Herriko mitologian ere.
12. a) Foru xedapen horretan hogeita bederatzirako laguntza lerro jasotzen dira, onuradun eta helburu ezberdinekin, eta lerro bakoitzari **eranskin** bat atxiki zaio.
b) Foru xedapen horretan hogeita bederatzirako laguntza lerro jasotzen dira, onuradun eta helburu ezberdinekin, eta lerro bakoitzari **eraskin** bat atxiki zaio.
13. a) Alberto Schommer argazkilariari entzun diogu berriki, artistak **iraultzaile** izango ez balira, leizezuloetako pintura lantzen egongo lirakeela oraindik, edo kubismoa margotzen; eta horregatik arteak aldatu egin behar duela.
b) Alberto Schommer argazkilariari entzun diogu berriki, artistak **erreboluzionario** izango ez balira, leizezuloetako pintura lantzen egongo lirakeela oraindik, edo kubismoa margotzen; eta horregatik arteak aldatu egin behar duela.
14. a) Donostiako Leku Eder hoteleko logela bikoitzetan aukera dago ohe **erasgarri** bat ipintzeko.
b) Donostiako Leku Eder hoteleko logela bikoitzetan aukera dago ohe **eransgarri** bat ipintzeko.
15. a) Komunikabideen eragin **erdaltzalea** gero eta handiagoa dela eta, kezkatu agertu dira hainbat aditu.
b) Komunikabideen eragin **erdarazalea** gero eta handiagoa dela eta, kezkatu agertu dira hainbat aditu.



Hobe itzazu esaldi hauetako puntuazio-markak "Tartekien antolaeraz eta puntuazioaz" artikuluan proposatzen direnak kontuan hartuta:

1. "Nitaz gaizki esaka dabiltzanek nik beraietaz pentsatzen dudana balekitez are okerrago mintzatuko lirake". Sacha Guitry
2. Ikerketek diru publikoa jasotzeko debekua George Bushen Obamaren aurrekoak ezarri zuen 2001ean.
3. Fondo horretan daude gordeta Juan Bautista Erro Azpiroz, 1773-1854, hazendista, politikoa eta idazle eza-gunaren paperak.
4. Zergatietan sartuta, hau da, zergatik Jaurilaritzak momentu zehatz batean erabakitzen du dekretu hori aldatu egin behar dela, hemen gogoratu beharrekoa da...
5. Euskaraz, hala ere, eta arazoak bistakoak dira, adituz nagusia oso atzean geratzea, edo behar ez dela ere uztea, da behinena, zabalagoa da koma faltuon erabilera.
6. Mixel Thikoipe da (Amenduze (Nafarroa Beherea), 1948) *Hotz bero* eta *Gorrail Azeria* (Maiatz) liburuen egilea.
7. Gaur arratsaldean gas leherketa gertatu da Aziluko, Araba, etxe batean, baina ez da zauriturik izan.

8. European ari diren hainbat jokalaririk daude, horien artean, Osasunako Javad Nekounam, eta Leicester Cityn jokatzeko duen Hossein Kaebi, Clementek zuzendutako duen talde horretan.
9. Vicent Partalek Bartzelonako *Vilaweb* komunikabideko zuzendariak, oso hitzaldi interesgarria eman zuen atzo Donostian.
10. Lortu ditugun emaitzen arabera, badirudi ugaztunen burmuineko ezaugarrietako batzuk, adimena eta memoria, besteak beste, aldatzea posible izan daitekeela.
11. Alkateak ezkutuko obra eta erabilaren berri izaten badu, berdina da nondik datorkion berria, obra edo erabilera horiek berehala etetea aginduko du.
12. Euskaltzaindiak, 109. arauan, ez du zurrin jokatzeko: "Zenbaitetan, perpausaren joskeratik aparteko eranskin edo tarteki gisa ematen da bigarren sintagma eta ez aposatu gisa. Horrelakoetan, benetako aposizioak ez dagoenez, ez da komunizadura egiten".



Sinonimoak eman:

1. Udalekuetan **artatzaile** moduan lan egiteko lanpostu bat atera berri dute gure herrian.
2. Eusko Jauriaritzak fresatzeko makina baten **dohaintza** egin dio Argentinako Mercedes hiriko Eskola Teknikoari.
3. Tasatutako etxeak babes ofizialerako izendatutako **orubeetan** egingo dira.
4. Zure adinean hontza baino lotiagoa nintzen ni; inork molestatzen ez baninduen, **aise** egin nezakeen lo bazkal ordura arte ere.
5. Debagoieneko AHTren **balizko** desjabetu eta kaltetuak Arrasaten bildu dira.
6. Ibarretzek eskatzen du indarkeria matxistaren aurkako borrokan gizonak **engaitzea**.
7. Zu ez zara **herabe** jendartera hitz egitera irtetzeko, ni ordea, bai.
8. Artistak **iradoki** nahi duenez gain, materialak hitz egiten duela dirudi.
9. Denboraldiko bigarren garaipena **erdietsi** du TAUK.
10. Musika pirateatzea **zilegi** da? Argi al duzu galdera honi emango zeniokeen erantzuna?
11. Nekazaritzako elikagaien hondakinen murrizketa eta **ustiapena** izan zen bileran tratatu zen gaietariko bat.
12. Zehapen espedientearen **izapidea** fase aurreratuan duten kasuetan ere aplikatu ahal izango da.
13. Geroztik, irlandiarak ezin irabazi du atzera orduan galdu zuen eremua; **aizitik**, geroago eta ahalago izan da.
14. Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko eginkizunaren jardute-printzipioak **zedarritzen** ditu lege honek.
15. Adin horretatik gorako pertsonen hurbileko objektuak **lausotuta** ikusiko dituzte, argia ez baita ondo fokatuko erretinan.

SOLUZIOAK

1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:

- | | |
|------|-------|
| 1. a | 9. a |
| 2. b | 10. a |
| 3. a | 11. b |
| 4. a | 12. a |
| 5. a | 13. a |
| 6. b | 14. b |
| 7. b | 15. a |
| 8. a | |

2 Hobe itzazu esaldi hauetako puntuazio-markak "Tartekien antolaeraz eta puntuazioaz" artikuluan proposatzen direnak kontuan hartuta:

1. "Nitz gaizki esaka dabiltzanek nik beraietaz pentsatzen dudana balekite are okerrago mintzatzuko lirateke." (Sacha Guitry)
2. Ikerketak diru publikoa jasotzeko debekua George Bushek, Obamaren aurrekoak, ezarri zuen 2001ean.
3. Fondo horretan daude gordeta Juan Bautista Erro Azpiroz (1773-1854) hazendista, politikoa eta idazle ezagunaren paperak.
4. Zergatietan sartuta (hau da, zergatik Jauriaritzak momentu zehatz batean erabakitzen du dekretu hori aldatu egin behar dela), hemen gogoratu beharrekoa da...
5. Euskaraz, hala ere, eta arazoak bistakoak dira (aditz nagusia oso atzean geratzea -edo behar ez dela ere uztea- da behinena), zabalagoa da koma faltsuon erabilera.
6. Mixel Thikoipe da (Amenduze (Nafarroa Beherea), 1948) *Hotz bero* eta *Gorrail Azeria* (Maiatz) liburuen egilea.
7. Gaur arratsaldean gas leherketa gertatu da Aziluko (Araba) etxe batean, baina ez da zauriturik izan.
8. Europan ari diren hainbat jokalaririk daude -horien artean, Osasunako Javad Nekounam, eta Leicester Cityn jokatzen duen Hossein Kaebi- Clementek zuzenduko duen talde horretan.
9. Vicent Partalek, Bartzelonako *Vilaweb* komunikabideko zuzendariak, oso hitzaldi interesgarria eman zuen atzo Donostian.
10. Lortu ditugun emaitzen arabera, badirudi ugaztunen burmuineko ezaugarrietako batzuk -adimena eta memoria, besteak beste- aldatzea posible izan daitekeela.
11. Alkateak ezkutuko obra eta erabileren berri izaten badu -berdin da nondik datorkion berria-, obra edo erabilera horiek berehala etetea aginduko du.
12. Euskaltzaindiak, 109. arauan, ez du zurrin jokatzen: "Zenbaitetan, perpausaren joskeratik aparteko eranskin edo tarteki gisa ematen da bigarren sintagma eta ez aposatu gisa. (...). Horrelakoetan, benetako aposizioirik ez dagoenez, ez da komuntadura egiten".

3 Sinonimoak:

- | | |
|--|----------------------------------|
| 1. zaintzaile, begirale, jagole | 10. bidezkoa, legezkoa, zuzena |
| 2. erregalua, oparia | 11. aprobeixamendua |
| 3. lursailetan, lurguneetan | 12. tramitea, kudeaketa, gestioa |
| 4. erraz | 13. aldiz, ordea, berriz |
| 5. ustezko | 14. mugatzen, zehazten |
| 6. erantzukizuna hartzea, konprometitzea | 15. ilunduta, difuminatuta |
| 7. lotsatia, uzkurra | |
| 8. aditzera eman, sujeritu | |
| 9. lortu, eskuratu | |